



# BASAURI

Udala • Ayuntamiento

ANDONI BUSQUET ELORRIETA, BASAURIKO  
ELIZATE PRESTUKO UDALEKO ALKATE-  
LEHENDAKARI NAIZEN HONEK



Bandera  
Berdea

## JAKINARAZTEN DUT:

### SAN JUAN GAUA

San Juan gauean egin ohi diren suak direla eta, Basauriko Udalak su horiek ikuskatzea aurreikusi du, ingurumena eta gizakien zein ondasunen segurtasuna errespetatuz egin daitezela bermatzeko.

Egin asmo den su bakoitza Udalean erregistratu beharko da. Aldez aurretik eskaria, hurrengo datu hauekin, egin beharko da: eskatzailearen izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta NA, eta sua non egingo den. Suak egiteko **ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA**: ekainaren 20ra arte.

Udaltzaingoak bere gain hartuko du, Babes Zibileko Boluntarioen Elkartearekin elkarlanean, suak hurrengo segurtasun-neurri hauek betetzen dituztela egiaztatzeko ardura:

1) Sutea, materialak pilatuta, piztu aurretik ez da hiru (3) metro baino altuagoa izango.

2) Materialeak erregai solidoak izan behar dute. Debekatua dago edozein motatako lehergai edo likido suharbera erabiltzea. Debekatua dago, baita ere, ke handia sor dezaketen materialak (pneumatikoak, olioak, zuntzak, etab) edo bereziki toxikoak edo korrosiboak izan daitezkeen gasak (plastikoak orokorrean, PVCa, tresna elektrikoak, etab.) erabiltzea.

3) Sua edozein eraikin, linea elektriko, instalazio edo objektu finko edo mugikorretik eta edozein motatako ibilgailutatik hamabost (15) metrora kokatu beharko da, gutxienez.

4) Debekatua dago sua urbanizatutako zoladuraren gainean egitea, asfaltoa nahiz lauzazkoa izan; debekatua dago ere ibaiertzetako bide-zorretan, Jabari Hidrauliko Publikoari dagokion Arautegiko 234. artikuluko xedatutakoa beteaz, eta Uren Legearen 92. artikuluan erabakitakoaren kalterik gabe.

Zalantzak argitu edo iradokizunak egiteko: Udaltzaingora, 944.666.341 edota Babes Zibileko Boluntarioen Elkartea: 944.260.188.

ANDONI BUSQUET ELORRIETA, ALCALDE-  
PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE LA N.  
ANTEIGLESIA DE BASAURI

## HAGO SABER:

### NOCHE DE SAN JUAN

Ante la tradicional noche de las hogueras de San Juan, el Ayuntamiento de Basauri ha previsto un control preventivo de las mismas al objeto de que se realicen con respeto al medio ambiente y a la seguridad de las personas y los bienes.

Cada hoguera deberá registrarse en el Ayuntamiento, previa solicitud en la que constarán los siguientes datos: nombre, apellidos, domicilio, número de teléfono y D.N.I. del solicitante y lugar donde se va a ubicar la hoguera. **PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES**: hasta el 20 de Junio.

La Policía Local, en coordinación con la Agrupación de Voluntarios de Protección Civil, se encargará de supervisar que las hogueras cumplan con las siguientes medidas de precaución:

1º) El apilamiento de materiales que formen la hoguera, antes del inicio de la combustión, no ha de tener más de tres (3) metros de altura.

2º) Los materiales combustibles serán sólidos, prohibiéndose cualquier tipo de explosivos o líquidos inflamables. Se prohíbe también, la utilización de materiales que puedan producir grandes cantidades de humos (neumáticos, aceites, textiles, etc.) o gases especialmente tóxicos o corrosivos (plásticos en general, PVC, aparatos eléctricos, etc.)

3º) La hoguera deberá situarse a una distancia mínima de quince (15) metros de cualquier edificación, tendido eléctrico, instalación u objeto fijo o móvil y vehículo de todo tipo.

4º) Queda prohibido colocar la hoguera sobre pavimento urbanizado, bien sea de asfalto o de empedrado y en la franja de servidumbre de paso del cauce del río, en cumplimiento del art. 234 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico y sin perjuicio de lo dispuesto en el art.92 de la Ley de Aguas.

Para cualquier duda o sugerencia: Policía Local 944.666.341 o Agrupación de Protección Civil 944.260.188.

